

## ZINPEKOAK

1995-XII-25

Xabier Kintana

Euskaltzaindiari  
Jaun-andreok:

Berezkoa du Euskaltzaindiak arauemaile izatea. Alde horretatik, on da, gramatika, morfologia eta ortografia arloko arau eta agindu nagusi eta orokorrez gainera, Akademiak noizik behinean bana-banako kontuez ere oharrak plazaratzea, gure gizarteari bere eguneroko problematxoak ere bereak egiten dituela adierazteko. Hortaz, egoki datoz, adibidez, *Euskal Herria, ertzain, udaltzain, Arartekoa* edo *Autonomia Erkidegoa* moduko izenen erabaki konkretuak, idazle eta erabiltzaile askorentzat argigarriak izaten direlako.

Baina erabaki edo gomendio horien hizkuntz egokitasuna alde batera utzirik, Euskaltzaindiak gogoan eduki behar du, halaber, horretarako ere une egokiak izaten direla. *Arartekoaren* kasuan, adibidez, hizkuntz erabakia kargua bera ezarri bezain laster proposatu zuen, eta horri esker egundoko arrakastaz hedatu da, bai euskaraz eta bai erdaraz ere. *Autonomia Erkidegoaren* kasuan, ordea, berandu ibili gara, eta horrek, seguraski, problemak ekarriko dizkigu proposamena hedatzeko eta errotzeko orduan.

Hori dela eta, erne egon beharko genuke gizarteko bizitzan eragin handia izan dezaketen hitz batzuen kasuan. Hastera doan urtearekin batera figura juridiko berria indarrean jarriko zaigu, espainolez "*tribunal del jurado*" deitua, eta komeniko litzateke, berandu baino lehen, hori izendatzeko, Euskaltzaindiak gure hizkuntzaz formula bat lehenbailehen proposatu eta plazaratzea. Administrazioak, komunikabideek eta jendeak, oro har, biziki eskertuko lukeela uste dut.

Justizi Sailak, egia da, jadanik formula bat kaleratu du, oraingoan, Euskaltzaindiarekin kontatu gabea izan arren, egoki xamarra. Edonola ere, gerta daiteke hemendik zenbait egunetara beste itzultzaile batek —arlotxo honetako koordinaziorik eza tamalgarria izaten baita— beste modu bat kaleratzea, horrekin nahastea eta anabasa ekarriz. Hori dela eta, komeniko litzateke, nik uste, Euskaltzaindiak bere aholkua jakinaraztea, jendeak nora jo jakin dezan.

Euskal Gobernuaren publizitatea kaleratu baino aste batzuk lehenago Andres Urrutiarekin mintzatu nintzen arazo honetaz. Biok bat etorri ginen itzul-

penik egokiena zinpekoak gisako zerbait zatekeela, beti pluralez, *zinpekotza* edo *zinpekogoa* modukoak gaitzetsiz. Justizi arloko zinpekoak —eta ez, adibidez, *zinpeko zainak* edo *jagoleak*, hots, erdaraz *guardas jurados* deituak— zirela bereziki argitzeko, Andresek zuhurki *epai* hitza eranstea proposatu zidan, Epai-zinpekoak alegia, laburtuz zinpekoak gelditu daitekeen arren.

Euskal Gobernuak orain agertu duen publikitatean *Zinpekoen epaimahaia* dator, itxuraz egoki, eta guk pentsatua geneukanarekin bat. Horiek kontutan izanik, hona hemen proposamena:

Miembros del jurado: Epai-zinpekoak.

Mesa o Tribunal del Jurado: Zinpekoen epaimahaia.

‘El jurado ha decidido’ edo ‘Los miembros del jurado han decidido’: Epai-zinpekoek hau erabaki dute *edo* Zinpekoen epaimahaiak hau erabaki du.

Testuingurua aski garbia denena, dena den (epaiketaz ari garela begien bistan denean, kronika, film edo kontakizun batean adibidez) zinpekoak bakarrik erabil daiteke, aurretik epai hitza kendurik; *Zinpekoak oraino bildurik daude; zinpeko guztiak bat datoz; zinpekoek ez dute beren azken hitza esan...* kasu.

Dena dela, kontutan eduki behar da Espainiako lege-sisteman “*jurado*” hitza, kasu batzuetan, egoitza propioa izaten duen organo bat izendatzeko ere erabiltzen dela, “*Jurado Provincial de Expropiación Forzosa*” delakoan bezala, eta kasu horretan hitz hori euskara *epaitegi* gisa itzuli behar dela, *Nahitaezko Desjabetzapenerako Probintzi Epaitegia* alegia, ez baitu zerikusirik hemen aipatu diren Zinpekoen Epaimahaiarekin.